

Patua

Josu Waliño

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa
2001



Zumaiaiko Udala

*emskara
txanpau*



Patua

Josu Waliño

Julene Azpeitia 14. ipuin lehiaketa

2001

Zumaiako onenaren saria

Zumaian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Josu Waliño Pizarro (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

Kobazuloaren sarrera zapaldu dutenean arnas eztulka ari dira gehienak. Irakasleak badu lehendik ibilbide horretarako ohitura eta arazorik gabe iritsi da bertaraino, horregatik harritzen du bera baino hogeita hamar urte gazteago diren haiek horrelako izerdi hotsen artean iristea. Gazteak, ja!

Kobazuloak sarrera eta irteera ditu. Mendiaren malda gogorraren amaieran jaio eta mendiaren beste aldeko amildegia sakonean itsasoari begira hiltzen den zulo luzea da. Kresalaren usainak zeharkatzen duen zulo horren inguruan bildu ditu ikasleak. Itsasoaren orroak entzun daitezke bertatik, amildegia heriotza miazkatzen duen itsasoaren orroak.

—Pentsatuko duzue Platon-en kobazuloaren inguruan hitz egiteko bildu zaituztedala hemen. —hasi da irakaslea— Platon-en kobazuloa ordea irteerarik gabeko iluntasuna zen, eta honek baditu sarrera eta irteera. Æ hau esanda geldiune bat egin eta amildegia amaieran kolpeka dagoen itsasoa arnasten du Æ Ideia bat aztertzeke ekarri zaituztet hona. Grezia zaharretik datorren ideia filosofikoa, behin baino gehiagotan kurtsoan zehar landu duguna: patua. Eta betiko galdera: zein da patuaren eragina gizonaren bizitzan? Dakizuen bezala estoikoek eta hauen artean bereziki Chrysippus-ek uste zuten jaungoikoak betetzen zuela patuaren funtzioa. Epictetus berak ere hala uste zuen, eta behin eta berriz idatzi zuen patuaren aurka ez dugula zer eginik, jaungoikoaren aurka borrokatzea bezala litzatekeelako. Baita Voltaire bezalako zientzialari-filosofoek ere. Azken honen ustez, patuan sinesten ez zuena ergel hutsa zen. Beraz, eragiten al du patuak gizonaren bizitzan? Zein da zuen patua? Hilabete falta da azken azterketetarako, eta gai horren inguruan eskatuko dizuet kurtso amaierako lana.

Ikasle taldea berak esandako guztia idazten ari da etengabe. Ez diote atentziorik jartzen hitzen esanahiari, leloarekin gelditzen dira: kurtso, azterketa, lana... Nola esan gazte hauei inork espero ez dezaken etorkizun bat dugula? Nola adierazi bizitzak beti harrapatuko zaituela ustekabean, eta, are gehiago heriotzak? Eta bakardadeak? Guztiak elkartzen direnean zein izan daiteke gizasemearen patua?

—Irakasle, nola esan daiteke gizonaren patua filosofia dela? Hori ez al da superstizio hutsa? —ustekabeen harrapatu du galderak. Superstizioa, filosofia? Gizonaren patua heriotza da, edo alderantziz?

—Grekoen mitologian azaltzen denez Zeus-ek hiru alaba izan zituen: Clotho, Lachesis eta Atropos. Hauetako bakoitzak bizitzaren hasiera, erdialdea eta amaiera kontrolatzen zuten urrenez urren, eta hiruren elkartasunari Moira deitzen zioten, patua. Grekoek uste zuten Moira Zeus bera baino indartsuagoa zela, jaungoiko beraiek ere bete beharreko patua zutelako. Homeroren ustez mundua gobernatzen zuena Moira bera zen. Hau superstizioa ote da? Agian, baina garai bateko filosoforik handienek benetan sinisten zuten bizitzaren ordena horrela zela. Aro modernoko pentsalariek ere aztertu dute gaia: batzuen ustez, gure patua kanpoko elementuek kontrolatzen dute eta horregatik ezin diogu honi ihes egin. Jaungoikoa, natura, edo gizona, berdin dio nola deitu elementu horiei baina hauek osatzen dute patua hauen ustez. Beste batzuen ustez berriz guk geuk egiten dugu gure bidea, eta emandako urrats bakoitzean hurbiltzen gara gure patura. Hor sartzen da filosofia, bi ideia horien arteko eztabaidan. Eta hori da zuek landu behar duzuen.

—Hori ondo dago, baina hori esateko hona etorri beharra al zegoen?

Kexuak ez du harritu. Kobazulora sartu orduko antzekorik espero zuen.

—Gizaki guztion patua bera da: heriotza. Nork eragindakoa ordea? Guk ala beste norbaitek? Agian Moirak erabakiko du gure etorkizuna. Kobazulo honetan Moiraren osotasuna aurkituko duzue: jaiotza, egiten dugun bidea, eta heriotza. Ez al da patua adierazteko era bikaina? Ea zuen lanak kobazulo hau bezain argiak diren azalpenetan.

Ikasleek ez dute barrerik egin. Seinale ona dela pentsatu behar, norbaiten interesa piztu duela patuak. Agian ez da horrela izango, baina berak badaki patuan pentsatzen hasi ahala konturatuko direla honen indarra norainokoa den. Begira bera bestela, bakarrik koba-zuloaren erdian, sarrera den aldetik ikasleak irteten direla ikusiz eta bere ustez irteera behar duen aldetik amildegiaren bakardadea entzunez. Hor behean amildegiarena ez den beste norbaiten bakardadea dago, pentsatzen du, nire bakardadea. Nire patua.

Dagoen lekutik jaiki, eta mendian behera abiatzen da bere betiko bidea jarraituz.

-2-

Bakardadean bizi den gizonaren denborak beste zentzu bat izan ohi du, beste erritmo bati jarraitzen dio. Baina etorkizunarengandik ezer espero ez duenarenak ez du ez norabiderik ezta erritmo zehatzik ere. Horregatik harrapatu du ustekabeen kurtso amaierako lehen lanak bere mahai gainean aurkitzeak. Hilabete pasa al da? Beste hilabete bat amildegiarekin pentsatzen, emaztea eraman zion amildegiari begiratu lizunak eskaintzen. Noiz arte horrela?

Mahai gaineko lana zabaldu eta irakurtzeari ekin dio. Ez du ezer adierazten, filosofiako liburuetatik bildutako ideia multzoen kopia besterik ez da. Proposamen berririk ez, pentsamendurik ez. Hori ote da gaurko filosofia? Edo agian berak buelta gehiegi ematen dizkio ideia berdinari?

Mahaitik jaiki eta bulego txikiaren alde batean dagoen armairuan utzi du lana. Ez dago leku askorik bertan. Urte gehiegi daramatza eskolan horretarako.

Posta begiratzera atera da: gutun bakarra dago postontzian. Egia esan normalean baino gehiago bada. Bulego barrura itzuli eta mahaian eseri da. Nekatuta dago. Asko nekatzen du bakardadeak, bereziki egunerokotasunaren monotoniarekin konpartitutako bakardadeak.

Gutunari begiratu dio berriro. Bere izena makinaz idatzita agertzen da azalean. Besterik ez. Buelta eman dio eta ireki egin du.

Lore lehor mordoxka bat erori zaio mahai gainera. Lore lehorrak besterik ez. Nork bidaliko ote dizkio loreak bere adinean? Bakardadea berekin ligatu nahian akaso?

Bere betiko pentsamenduak baztertu, eta mahaian zabaldua dauden loreak begiraten ditu. Lehorrak egon arren oso ongi ezagutzen du hauen itxura, hauen usaina. Emazteari askotan bildu zizkion horrelakoak. Kobazulora igotzen den bide ondoko basoan hasten diren loreak dira, agian beste inon ere bai baina berak hor bakarrik ezagutu ditu. Badira urte batzuk ez duela horrelako lorerik ikus, eta hobe horrela jarraitzea.

Bere bulegotik irten eta etxera doa. Hobe loreak ahaztu eta alde egitea. Fakultateko atarian egunero uzten duen bizikleta hartu eta etxera doa.

Hiri txikien abantaila da hori. Bizikleta hartuz toki batetik bestera erraz mugi zaitezkeela. Desabantailak nabariak dira ordea. Nork ez du ezagutzen? Edozein ikasleren aurpegira begiratu eta badaki honek zer pentsatzen duen, zer dakien bere bizitzari buruz, bere desgraziari buruz. Ez dago intimitaterik. Hiri txikietan denek dakite denen berri, eta zerbait ez badakite asmatu egiten dute.

Ikasleek egindako lanaz pentsatzen du bizikletaren patxadaz baliatuz. Nola baloratuko du berak inoiz erantzun ezin izan duen galdera? Zein da nire patua? Agian bizikletan doala kamioi batek aurretik eramatea da bere patua, agian bakardadea, nork daki? Berriz gauza bera. Hobe ezertan ez pentsatzea. Bizikletaren erritmoa bera bada nahikoa pentsamendu. Aurrera.

Etxera iritsi eta bizikleta atarian utzi du. Postontzira inguratu eta zabaldu aurretik zalantza egin du. Eta gutun gehiago balego? Bere buruari keinu haserre bat bota eta postontzia zabaldu du. Hutsa dago betiko legez. Etxera doa. Giltza patrikatik atera eta sarrailan sartzerakoan ohartzen da. Lanpasa lorez josita dago, eta hauek ez daude lehorrak.

Giltza lore artera erori zaio, makurtu eta jaso. Eskuetan duen dardarak ez du laguntzen. Ez dauka loreak begiratu beharrik mota ezagutzeko. Nork egiten dio horrelakorik? Nola jakin?

Azken urtetan lehen aldiz erabaki bat hartzeko gai sentitu da. Urtetan hartu ez duen erabakia da, baina aurrera egiten du. Giltza patrikan sartu eta kobazulora daraman bidean abiatzen da. Nola jakin bestela patuak zer espero duen beragandik?

Bideari animoso ekin dio. Badaki herria utzi eta mendira inguratu bezain laster bere animoak ez direla horrenbestekoak izango. Emazteak ere bide

berdina egin zuen urte batzuk lehenago, eta orduan ere nola jakin? Hiru urte zeramatzan minbiziak jota eta berari hitzik esan ez. Hiru urte.

Bide berdina egin zuen hark orduan ere, etxea utzi mendirantz abiatu eta bertan kobazulora zeraman bidea hartu. Egun hartan ez zuen euririk egiten, baina gaurkoan egingo duenaren itxura dauka. Mendi magalera iritsi orduko kobazulora zeraman bidea hartu zuen, berak hartuko duen berbera, eta honi jarraituz basoaren bidegurutzera iritsi. Ez zuen zuzen jarraitu. Benetan maite zituen berak hainbeste aldiz bildu zizkion loreak. Bidea utzi eta basora sartu zen loreak biltzera.

Mendi magalera iritsi da. Paisaia aldaketak bere burutazioak uxatu ditu. Zorionak. Zementua utzi eta aldapan gora abiatzen den bidetxoa hasten du. Hamar minututan basora iritsiko da, agian ezertan pentsatu gabe egitea lortuko du. Ttipi-ttapa, pauso hotsak jarraitzen ditu buruarekin. Ba al dago pentsamendu lasaiagorik?

Basora daraman bidegurutzera iritsi orduko izerditan dago. Ez da nekearen eragina, bidea arina baita eta berak askotan egin du. Izerdi hotza da. Zer espero du bertan aurkitzea? Bere patuaren ideari beste begiratu azkar bat eman eta basora abiatzen da. Sarrerara iritsi orduko lore batzuk ikusten ditu, baina berak badaki barnealdean gehiago aurkituko dituela. Kopetako izerdia lehortu eta aurrera egiten du.

Abiatu orduko zaunkak entzun ditu. Txakur txiki batek egindako zaunkak direla dirudi baina ez dago ziur. Aurrera doa, basoaren erdigunerantz txakurraren zaunkei jarraituz. Bihotza dardarka dauka. Urte gehiegi dira basora hurbildu gabe, eta bat-batean bere erdigunean dago. Barrurantz doan bidea ongi ezagutzen du, baina nora darama benetan?

Zelai batera iristen da. Ongi ezagutzen duen zelaia da, emaztearentzat loreak bildu ohi zituen zelaia, emazteak loreak bildu zituen zelaia. Nola uxatu ideia hori burutik? Zaunka batek lortzen du hori. Ozen entzun da, hurbil dago beraz. Aurrera begiratu eta zelaiaren erdian ikusi du txakurra zuhaixka bati lotuta. Norbaitek bildutako loreek inguratzen dute. Txakurra bakarrik dago, beldurtuta. Bakarrik dago eta bakardade horrek beldurtu egiten du, berari bezala. Eta loreak inguruan.

Kume bat da eta dar-dar batean dago. Hurbildu eta laztan batzuk egiten dizkio. Badirudi konpainiak lasaitzen duela. Berari ez. Zuhaitzera lotzen duen soka hartu eta askatu egiten du. Txakurra aske da, baina, bera lotzen duten loreak inguruan daude. Zurbil dago baina ez du negarrik egiten. Aspaldi agortu zituen malkoak lore haiei begira.

Zaunka bat. Begirada altxa eta txakurra ikusten du zelaiaren hasieran. Askatasuna eskertzen du baina konpainia behar du txakurrak, berak bezala. Jarraitzea erabakitzen du. Bere patua ezin du aldatu, hala bai?

Jarraitzen dutela ikustean txakurra basoan sartu eta bideari heltzen dio. Aurretik doa, noizean behin atzera begiraturaz. Basotik irten eta bidegurutzeari kobazulorantz daraman bidea abiatzen du.

Txakurra jarraitzen ari den arren, ezagutzen du bide hori jarraitzearen esanahia. Kobazulora askotan joan da azken urteotan, baina gaur arte ez da ausartu basoan sartzen, loreak usaintzen gogoetak pizten. Guztiak du esanahi bat, eta orain egiten duen bideak ezerk baino gehiago. Emazteak ere bazekien hori basoan loreak bildu zituenean, bidegurutzera itzuli zenean eta batez ere kobazulora abiatu zenean. Bere emazteak oso ongi ezagutzen zuen

egindakoaren esanahia hiru urtez minbizi larria zuela ezkutatu zion bitartean. Bere emazteak esanahi guztiak berekin zituen basoko loreak jaso, kobazulora abiatu eta amildegian barneratu zen egunean. Gutun luze bat aurkitu zuen han, lorez inguratutako gutuna. Eta amaieran bi hitz: maite zaitut. Kobazuloaren irteeran aurkitu zuen hasiera hori. Bakardadearen hasiera.

Zaunka batek piztu du berriz. Txakurrak gora doala begiratzen dio. Eta bera betiko pentsamenduari so, beste ezertan pentsatu ezin. Zein da gizakion patua? Galde diezaiotela nire emazteari.

-4-

Txakurrari ez dio jaramon gehiago egiten. Zertarako? Badaki zein puntutara eramango duen. Galdera beste bat da: benetan nora eramango duen, zertara? Mendiaren amaieran kobazuloa ikus dezake eta txakurra honen sarreran desagertzen ari da.

Kobazulora sartu eta iluntasunean aurrera egiten du. Ez du argirik behar, askotan zapaldu baitu bertako harri hotza. Pauso batzuk eman, eta amildegira ematen duen zuloaren parean agertu da. Bertan dago txakurra bere zain. Loreak lurrian, gutun-azal bat inguratuz.

Hainbeste urteren ondoren berriz hor, gutun-azal bati begira. Amildegira begiratzen du. Orain ez du arazorik ezertan ez pentsatzeko. Itsasoaren soinuk lasaitu egiten du. Amildegia agurrak bakardadea uxatzen du.

Makurtu eta gutun-azala hartzen du. Txakurra begira dauka.

—Zuk idatzitakoa al da? æ galdetzen dio. Ez du erantzunik espero.

Gutun-azala irekitzen du. Orri txuri bat dago barruan eta bertan makinaz idatzitako lerro bakarra:

Hau da nire patua.

eta bere sinadura dirudien zirriborroa amaieran.

—Hau al da zure patua?

Ahotsa bere atzetik dator. Ez du bueltarik ematen. Ez du horren beharrik. Askotan entzundako ahotsa da eta ongi ezagutzen du.

—Zuk esan behar didazu hori. Zuk ezartzen al duzu nire patua?

—Hala dirudi. Baina hala izango balitz, zure patua zuk zeuk hautatutakoa dela pentsatuko luke munduak. Hor dago gutunazala eta aurrean amildegia. Bertara bultza zaitzaket eta inork ez luke kontrarik pentsatuko. Zuk esan bezala kobazulo honetan dago gizonaren patua: jaiotza, bizitza eta heriotza. Zein da beraz zure patua?

Irakasleak atzera begiratu du. Irakaslea begira dauka, esku hutsik. Aurpegian duen irribarrea ez da gaiztoa, argia baizik, beldur puntu bat ere adierazten du begiradan. Badaki ez diola minik egingo, irakasle zaharra harritzea espero duen ikaslearen harrotasuna besterik ez du adierazten honen begiradak.

—Hau al da zure kurtso amaierako lana?

—Agian bai. Bi patu motaren arteko eztabaida eskatu zenigun: norberak definitzen duena, eta kanpotik ezarritakoa. Nik biak jartzen dizkizut mahai gainean, biak bat izan daitezkeela erakutsi dizut.

—Baina bietan ere zuk hautatzen duzu zein izango den nire patua. Hau zure esku dago beraz.

—Bai, baina zuk zeuk bideratu duzu kanpotik ezarri beharreko patua. Zure tristuraren jatorria denok ezagutzen genuen, beraz erraza zen hau bideratzea.

—Benetan hala uste duzu? æ irakasleak berriz eman dio buelta bere gorputzari. Ez dauka ikasle harroputz baten aurpegia ikusi beharrik honen pentsamendua ezagutzeko. Nahiago du olatuen lasaitasunari begiratu.

—Bai.

—Zein da orduan nire patua?

—Bizitza nik hala erabakitzen dudalako. Baina heriotza litzateke nik hala erabakiko banuke.

—Ez da hori.

—Akaso zure patua hautatzeko moduan ikusten al zara?

—Bizitza eta heriotza ez dira inoiz aukerak, ezarritako ondorioak baizik, patuaren zati dira beraz. Zure kurtso amaierako lana da hau, eta ez zara gai zuk zeuk egindako galderari erantzuteko: zein da nire patua?

Egoerak ustekabean harrapatu du ikaslea. Kurtso amaierako lana bikain prestatu zuelakoan zegoen, lan originala benetan. Irakaslearen hainbat erreakzio espero zituen, haserrea bereziki, eta honen beldur zen. Orain ordea, ez daki zer erantzun.

—Ez duzu erantzunik. æ irakasleak ez dio begiratzen. Nahiago du itsasoa, lasaitasuna, kresala. Olatuak ere begira daudela dirudi.

—Ez.

—Urte askotan bizi izan naiz paturik gabe. Jaiotza eta bizitza ezagutu ditut, eta heriotza bakarrik dut aurrean. Horregatik uste nuen heriotzaren bakardadean zegoela nire patua. Baina esan bezala, hori ez da aukera bat, ondorioa baizik, eta bakardadearen heriotzara zigortuta nengoela konturatu nintzen. —atzera begiratu du arnasa hartzen duen bitartean. Ez du ikaslea ikusten, baina bai bere bizitzaren sarrera, eta jarraipena. Orain aurrean amaiera dauka. — Azken urteotan zalantzarik ez neukan nire patua hori izango zela: bakardadea. Baina agian nire patua oso bestelakoa da. Agian bakardadearen konpainiaz irteeran jaiotza topatzea da nire patua.

Irakaslea makurtu egin da. Badaki ikaslea begira egongo dela berak loreak laztantzen dituen bitartean. Eskukada bat hartu eta usaindu egin du. Maitasunak usain berdina dauka. Aurrean itsasoa du, eta honek zabaltzen duen kresalaren usaina airean. Askatasunaren usaina.

Arnasa hartu eta amildegian egiten du salto. Loreak berekin daramatza eta kresalak hilea laztantzen dio. Olatuak agurtzen diotela dirudi, eta hauen artean bere emaztea irribarrez ari da.

Nik ere maite zaitut.